


HBko Mahai Nazionalaren
kontrako auzia

Iparraldeko ezker abertzaleak sustengua adierazi dio HBri

Alternatiba Demokratikoa' aurkeztuko dute urriaren 11n Baionan

Heldu den astean jujatu-ko dituzten Mahai Nazionalako kideei elkartasun osoa adierazi zieten atzo Herriaren Alde, Ezkerreko Mogimendu Abertzalea eta Euskal Batasuna talde abertzaleek. Manifestaldia antolatu dute urriaren 11n Baionan, eta 'Alternatiba Demokratikoa' aurkeztuko dute.

Hur Gorostiaga / Baiona



Ipar Euskal Herriko ezker abertzaleko taldeek bat egin dute HBrekin.

BOB EDME

IBAN ETXEZAHARRETA HAKO kideak esan zuenez, «auzi politikoa izanen da goitik behera». «Juridikoki ez du funtsik eta mendealdeko Europar ere ez du parerik. Irlandan bake bidea jorratzen duten bitartean, Euskal Herrian aurkezten den bake proposamen bakarra presondegiarekin zigortu nahi dute», adierazi zuen.

Panpi Sainte Marie EMAko kideak Alternatiba Demokratikoa-

ren funtsa oroitarazi zuen eta «Euskal Herriak bizi duen gatazkaren gakoa lurraldetasuna eta autodeterminazio eskubidearen onarpenean» dagoela esan zuen.

Azkenik, EBren izenean, Gabi Oiarzabalek haxe adierazi zuen:

«Hegoaldean demokrata eta abertzale gisa aurkezten diren alderdiek ez dute beren sustengua adierazi. Guk bai, eta demokrata diren guztiei dei egiten diegu Baionako manifestaldian egon daitezen». x

HBko Mahai Nazionalak NBEra jo du babes eske

Kasua aztertu eta Espainiako Gobernuari azalpenak eskatuko dizkiotela agindu diete

A.Unanue / Iruñea

HERRI BATASUNAKO zenbait kide Nazio Batuen Erakundeko hiru ordezkarekin elkarrizketatu ziren joan zen astean Mahai Nazionalaren aurkako epaiketa eta horren inguruan egon omen diren presio politikoak salatzeke. Antton Morcillo mahaiakideak atzo azaldu zuenez, NBEko ordezkariak kasua hurbiletik segituko dutela agindu zieten, beharrezko izanez gero Estatu espainiarrari kontuak eskatzeko.

HBko ordezkariak NBEn epaileen eta abokatuen independentzia bermatzeko ardura duen pertsonarekin elkarrizketatu ziren lehendabizi. Hari epaileak Espainiako Gobernuaren aldetik HBko zuzendaritza zigortzeko jasotzen ari diren presioen berri eman zioten. NBEko arduradunak jakinaren gainean zegoela esan zuten.

NBEn adierazpen askatasunaren aurkako erasoak aztertzen dituen arduradunak an-

tzeko erantzuna eman zien HBkoei. NBEko arduradunaren iritziz, nahikoa datu dago Espainiako Gobernuari azalpenak eskatzeko, Mahai Nazionalako kideen epaiketa adierazpen askatasunaren aurkako izan litekeela uste baitu. Azkenik, Genevan atxiloteta arbitrarioak ikertzen dituen lan talde batekin egon zireen.

Horri lotuta, Morcillok gezurtatu egin zuen HBk Jon Idigoras espetxeratu zutenean NBEn salaketa egin zuela. Mahai Nazionalako kideak azaldu zuenez, NBEk zenbait herritarrek protesta moduan bidalitako postal batzuk besterik ez zituen jaso, «eta logikoa da haiek aintzat ez hartzea, inork ez zuelako salaketa formalik egin».

Floren Aozek, berriz, epaileak presioak jasaten ari direla esan zuen: «Mayor Oreja kondena dagoeneko idatzita dagoela, bost urtekoa izango dela esanez dabil. Eta epaileek ez dute deus egin. Hori oso esanguratsua da». x



URRIAK 5 ZATOZ PASAIA-LEZORA! EUSKARAK INOR EZ DU ARROTZ!

•TRIKITILARIAK

•PAILAZOAK

•DANTZA TALDEAK

•ANTZERKI TALDEAK

•DULTZAINEROAK

•TXARANGAK

•URTZ

•TRABUKO

•BASAKABI

•DOKTOR DESLAI

•NAHI TA NAHIEZ

•FANFARREAK

•HERRI KIROLAK

•GAITEROAK

•JOXE RIPIAU

•TXARKEY

•ALAITZ ETA MAIDER

•BERTSOLARIAK

•EGAN

•JOUSILOULI

•AMA LUR
ETA SUPERBAT

•BALERDI-BALERDI

•DRINDOTS

•EUSKARA PLAZARA ikuskizuna

•NATURGUNE Bikaina

•XUIA

•IBON SALABERRIA

•LATZEN

•TRIKI TAKE

•EXKIXU

ERABIL ITZAZU
GARRAIO PUBLIKOAK

50 IKUSKIZUN EUSKARA ETA
IKASTOLEN ALDE ONDO IGAROTZEKO